

FUNTSEZKO JARDUERAK:

Gure zerbitzu eta produktuaren funtsezko jarduera antolatutako bidaiak aurrera ateratzea da.

Hasieran produktuaren ekoizpena egin behar dugu, hau da, gure produktuaren diseinua egin behar da. Hau egokia izan behar da eta oso zehatza, hau da, hegazkinak diseinatu kontuan hartuz eskaini nahi dugun zerbitzua.

Diseinua izanda, hegazkinak fabrikatzeko materialak aukeratu eta lortu behar dira, aurrerago hegazkinak fabrikatzeko.

Hegazkinak fabrikatu ondoren, gure zerbitzuen antolakuntza egingo dugu.

Beste funtsezko jarduera bezeroen arazoak konpontzea izango da. Bezero bakoitzaren arazo indibidualei irtenbidea bilatu behar diegu, gure enpresarako jarduera hau oso garrantzitsua izango da. Hauek, hegaldi osoan eskura izango dute pertsonal espezializatua beraien kezka eta arazoak ahal diren neurrian konpondu ahal izateko.

Gure enpresa haurra eramateko, ezinbestekoa da bezeroak erakartzea eta beraien atentzia ekartzea, horretarako iragarkiak eta publizitatea oso garrantzitsua izango da horrela bezereo gehiago edukitzeko.

Iragarkiak oso erakargarriak izango dira, izan ere, bertan gure produktuaren berrikuntzak azalduko ditugu. Azkenen finean, publizitatea gure produktuaren funtsezko jarduera bat izango da, honekin jende askok gure produktuaren ezagutza izango du (edozein adinetako jendea erakarriz).

Horrez gain, gure zerbitzuen prezioa ere zehaztu behar dugu. Horretarako eskaintzen ditugun zerbitzuak aztertuko ditugu eta hauen arabera bidezko prezioak jarriko ditugu. Prezioak aldatuko egingo dira bezeroek hartzen duten tarifaren arabera.



Beste funtzezko jarduera bat, gure web-orria haurrera eramatea izango da. Hau, mantendu eta garatu egingo dugu, informazioa berritzen eta web-orriaren etengabeko kudeaketarekin erlazionatutako jarduerak egiten. Bertan informazio guztia oso ondo antolatuta egongo da, informazioaren bilaketa errazteko asmoarekin. Bezeroei gure produktuaren informazioa bilatzean, zalantza edo kezka bat sortzen ba zaie, web-orri honetan telefono zenbaki bat egongo da jarrita zalantza hauek argitzeko.

Azkenik, enpresa modu egokian garatzeko, nabarmentzekoa da langileen eta jardueren antolakuntza oso garrantzitsua izango dela. Hegaldien antolakuntza oso ondo zainduko dugu, agertu daitezkeen arazoak saihesten. Ondorioz, hauek denbora askorekin zehaztu egingo dira.